

JARRAIBIDEEN ORRIA**HIRUGARREN ARIKETA**

Arreta handiz irakurri jarraibide hauek. Oso garrantzizkoak dira saioa nola egin jakiteko

EZ IDATZI EZER, HARIK ETA AGINDUA EMAN ARTE.

- Ariketa egiteko denbora osoan zehar, mahai gainean utzi behar duzu zure NANA edo AIza, ondo ikusteko lekuan. **Ezin da sakelako telefonorik eduki piztuta (ezta hegaldi-moduan ere), gordeta eduki arren. Ezta transmisore edo hargailu gisa erabil daitekeen beste tresnarik ere.** Horrelakorik atzemanaz gero, arau hau hautsi duen pertsona berehala kaleratuko dute. Emisio irrati-elektrikoak detektatzen dituzten sistemak erabiltzeko aukera dago.
- Instalazioan **erloju bat ikusgai** dago.
- Azterketak dirauen bitartean, **erabateko isiltasuna** egongo da. Norbaitek behar ez bezala jokatzeko badu, edo beste hautagaiei endredoak eragiten badizkie, gelatik kanpora bidaliko da.
- **Probak 60 minutu iraungo ditu. Lehenago amaitzen bada, jarraitu beharreko prozedura izango da eskua altxatzea, zaintzaileetako bat erantzun-orriaren jatorrizko kopia jasotzera hurbil dadin, eta, orduan, izangaiak gelatik atera egin ahal izango du.**
- Denbora bukatzen denean, ERANTZUNEN ORRIAK jasoko dira.
- Proba arkatzez egingo da, eta izangai bakoitzak bere arkatza eta borragoma ekarri beharko ditu. Ezin izango da portamina edo minadun arkatzik erabili.
- **Ariketak hasteko edo amaitzeko jarraibideak ez badituzu betetzen, ez zaizu azterketa zuzenduko.**

HIRUGARREN ARIKETA

- Hirugarren ariketan lanbide-eremuko gaitasunak (jarrerak edo abileziak) neurtzeko proba bat egingo da, izangaiak lanpostura egokitzen den baloratzeko.
- Gehienez **60 minutu** dituzue proba egiteko.
- Mahai gainean NAN-az, idazteko tresnaz (2 zenbakidun arkatz biguna, borragoma eta sakapuntak) eta jarraibide-orri honetaz gain, honako hauek emango zaizkizu:
 - Erantzun orriak
 - Koadernoak
- Zuzenketa **lektore optiko** baten bidez egingo da.

OSO GARRANTZITSUA:

- **Garrantzitsua izango da galdera guztiei erantzutea; izan ere, galderak erantzun gabe uzten baditugu, proba baliogabetuta gera daiteke.**
- **Probak 10 puntu izango ditu gehienez. Proba EZ BAZTERTZAILEA da.**

EBALUATUTAKO GAITASUNAK:

- Pertsona barruko arloa: 2 puntu
- Pertsonen arteko arloa: 2 puntu
- Zereginen garapen arloa: 2 puntu
- Ingurunearen arloa: 2 puntu
- Gerentzia arloa: 2 puntu